



Aldi baterako gune autonomoak

"Kondenaturik al gaude, egunerokotasunean bizi garenok, autonomia inoiz ez bizitzeko? Lursail zatitxo libre batean ere ez bizitzera kondenaturik al gaude?" Hitzok Hakin Bey idazleak idatzi zituen, 1991n argitaratutako *Temporary Autonomous Zone* saiakeran.

Idazle estatubatuarrak historian zehar jazotako gune autonomoen analisi bat burutu zuen; autonomia, kasu honetan, norberak erabakiak hartzeko gaitasuna da, kanpo-indarrei jaramonik egin gabe.

Arkitekturik gabeko arkitektura, hortaz, gune autonomoa da; kanpo-indar horiei muzin egingo diena, sistemaren zirrikituak bilatuko ditu, eta hortik sartu, nahiz pitzadurak mikroak zein makroak izan.

Autonomia topa dezakegu, bizidunen kode genetikoaren arkitekturari so egiten badiegu: naturaren baitan ikus ditzakegu txoriek egindako habien egitura paregabeak, giza hezurduraren logika eztabaidaezina, edo inurritegien antolaketa espazialak.

Hirigintzaren ulermena nahaspilatzen duten legedi, planeamendu eta artez bide kopuru eskergaren artean ere, autonomia topatzeko aukera izango dugu, zirrikituei kontu handiz begiratu behar badiegu ere: espazio publikoen erabilera, adibidez, auzokideen eskuetan erortzen denean; botere publikoek bertan behera lagatako industrialde bateko eraikinetan zer gertatzen den kontrolatzen ez dutenean; herritarrek merkatu espekulatibotik at ikusi nahi dutenean beren burua; eraikuntzaren teknifikazioetik ihes egiten dugunean, mendeetako eskarmentura so eginez; baliabide gabeko herritarrek eraikin bat eraiki behar dutenean.

Materialek eta eraikuntza moduek izango dute, modu berean, autonomia bat; tradizioak agindutako eraikitze-prozesuek mendetan zehar frogatutako sistemak dira, eta industria edo legediaren beharrik ez dute, arau naturalak –edo autonomoak– baitituzte bere baitan. Maiz, egungo eraikuntza-sistemek, eta bizitzeko moduetan aldaketek, arau natural horiek puskatzeko jitea erakusten dute, eraikuntzaren teknifikazioak denari eutsiko diolakoan. Ez da, gehienetan, horrela izaten, eraikin modernoek dituzten patologia kopuru izugarriari erreparatuz gero.

Arkitektoak beti izango dira beharrezkoak, esango dute. Ezezkoa baieztatzea txorakeria izango litzateke, utopia. Baina Aldi Baterako Gune Autonomoak ez dira utopiak, egun gertatzen diren egoerak baizik, teknika eta legediaren itzaletik hanka egiten duten esparruak baitira. Esku artean duzun ale honetan hainbat zirrikitu bildu nahi izan ditugu, autonomia hauek guztiek emandako irakasgaiak gurera erakartzeko.

